

ABIZENAK

EZKERRA: XI ta XII gizaldian zabal ebillan Gipuzkoan Bizkaian eta Naparroan: Lazkao'ko erritar batek dauko: 1399.

Euskeratik igaro da "ezkerra" erderara, "sinistra" berba latza alboratzeko. Izen-ordea da, ez-izena.

FANO: 1445 Urduliz'en. Latineko Fanum'etik dato-rra diño, toki sakratua. Lopez Mendizabalek, beti lez, abereen bedarlekua dala diño.

FORUA: Latiñeko Forum'etik. Azoka.

FORURIA: Foru edo azoka-lekua. Elantxoben.

FRADUA: 1653'ean agertzen da. Bizkaian ez dakigu zer esan nai dauan.

FUIKA: Fikan agertzen da: 1474. Lopez Mendizabal: Ota-antzeko landara bat.

FULDAIN: Len Pildain. Amezketatik etorria. Leniz'en 1634. Amezkatat batek eukan 1409.

FULLAONDO: Marurin agertzen da: 1671 Bedarle-kuaren ondoan esan gura dau.

FURUNDARENA: Naparroatik Gipuzkoara sartu da eta orain Bizkaian dago, antza dagoanez, artzaiñak ekarrita. Furunda izena eukan baten etxea esan nai dau. Orion: 1764.

GABIKA: Gipuzkoatik etorria au be, baiña orain Lekeitio-aldean dabil. "Gabia" oletako maillua da, orduan olea dagon lekua esan nai dau. Tolosan 1346.

GABILONDO: Onen jatorria be gabia edo oletako maillua izan leiteke, eta "ondo" = alboan. Eibar'en agertzen da: 1643.

GABIÑA: Orduña-aldekua da eta Bilbaon agertzen da: 1654.

"Abi" edo arandanoak dagozen lekua da.

GABIRIA: Bergaran egoan abizen au eukan jauntxu baten jauregia. Gipuzkoan eta Araban zabaldu da eta Ameriketan asko. Jatorria "gabi" edo oletako maillua izan leiteke, edo "abi" arandanoak dagozan aldapa edo "iria". Bergaran agertzen da: 1463.

GAINTZA: Gipuzkoakoa da baiña Bizkaiko Zeanurin be ba-dago, Ibarguen auzoan. Mendi-gain asko dagon lekua esan nai dau. Mungian be badago.

Zumaian: 1592.

GAINZARAIN: Gain asko dagon lekuko arana esan gura dau. Beasain'en dagoz iru etxe. (1786)

GALARTZA: Gipuzkoan geien eta Bizkaian be asko, zabal dago abizen au.

"Galar" asko dagon lekua da eta galarra otearen antze-ko landarea.

Azpeitiako batek dauka: 1319.

GALLAIZTEGI: Azkueren ustez, "galla" goikoa da eta "aitz-" atxa eta "-tegi" askorena.

1489n. urtean gaiso-etxe bat sortu eban gizonak abizen au eukan, Antzuolan.

GALLASTEGI: Au "Gallaiztegi"ren aldakuntza dala dirudi.

GALATABEITIA: "Gallate" "allo"tik dator, "allo" abere-barrutia da.

Bizkaian: 1766.

GAMBOA: Gipuzkoakoa da, Ganboatarrak sortu eba-zana bat. Bizkaian asko zabaldu da, Mungialdean be bai.

"Kanbo"ren antza dauko eta Mitxelena'ren ustez, lati-ñeko "campus"etik dator. 1620'ean agiri da Bilbaon.

GAMIZ: Araban dauko erritxu batek izen au eta Bizkaian beste batek. Idazle bat dago Araban, antxiñakoa, izen onegaz.

"-ama-" abere-barrutia da eta "-iz" abizenen atzizkia. Aurreko "g-" gero ezarria. Bizkaiko Gamiz'tar bat Albar Iñiguez de Gamiz, Baeza'ko gudan izan zan, 1212 urte inguruan.

Olazar'tar Martin.